

2018-19 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa

ikastetxea: <i>centro:</i>	Uribekosta bhi	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	Derrigorrezko bigarren hezkuntza	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	2.kurtsoa
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	TEKNOLOGIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>			
diziplina barruko oinarrizko konpetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	HKG-Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna MAG-Matematikarako gaitasuna AG-Arterakoa: Diseinu eta eraikuntza jardueretan GHG-Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna ZG-Zientziarako gaitasuna TG-Teknologiarako gaitasuna		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Ana Uriarte	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018-19

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. PIG-Pentsatzen eta ikasten ikasteko gaitasuna
2. HHG-Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
3. EG-Elkarbizitzarako gaitasuna
4. EEG-Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna
5. IIG-Izaten ikasteko gaitasuna

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Arazo teknologiko ezberdinak hautematea eta definitzea informazioa bilduz, antolatuz eta sistematizatuz arazoak konpontzeko. (TG, HKG)	<ul style="list-style-type: none"> • zirkuitu elektrikoaren osagaiak zeintzuk diren zehazten ditu, eta multzo osoan duten egitekoa ondorioztatzen du. • zirkuitu elektrikoaren forma ezagutzen du, funtzionamendua eta muntaia ulertzeko.
2. Sistema diedrikoan objektu soilak zehatz eta argi adieraztea. (TG, HHG)	<ul style="list-style-type: none"> • Ea zirkuitu elektrikoaren eskemak interpretatzen dakien.
3. Objektuak eskalan marraztea. (TG, HHG)	<ul style="list-style-type: none"> • Ea sinbologia egokia erabiltzen duen.
4. Metalaren teknologiak Euskal Herrian duen garrantziaz jabetzea, metalen sailkapena eta propietateak ezagutzea, eta haien propietateen arabera, produktu ezberdinak fabrikatzeko egokienak aukeratzea. (TG, GHG, PIG, EEG)	<ul style="list-style-type: none"> • Ea oinarrizko magnitude elektrikoak eta haien unitateak ezagutzen dituen. • Ea zerrendatzen dituen siderurgian erabiltzen diren metal motak. • Ea deskribatzen dituen metal ezberdinen ezaugarriak.
5. Energia sortzeko modu desberdinak deskribatzea, kasu bakoitzean egokiena	<ul style="list-style-type: none"> • Ea behar bezala erabiltzen dituen erremintak, makinak eta tresnak, ordenagailua barne, eta segurtasun-

<p>aukeratzeko. Energia berriztagarriak. (TG, PIG, EEG, GHG)</p> <ol style="list-style-type: none"> 6. Zirkuitu elektrikoaren sinbologia eta eskemak ezagutzea. (TG, HHG) 7. Oinarrizko magnitude elektrikoak eta haien unitateak ezagutzea: intentsitatea, erresistentzia eta tentsioa. Ohm-en legea. (TG, ZG, IPG) 8. Operadore mekanikoak eta makina sinpleak erabiltzen jakitea. (TG, EEG) 9. Segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzea. (TG, EG, IIG.) 10. Informatika-sareak, Internet ezagutzea, klaseko lanak egiteko laguntza baliagarria izan dezaten. (TG, HHG, IPG) 	<p>eta higiene-irizpide egokiak erabiltzen dituen.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ea irudikatzen dituen objektuak eta sistema teknikoak proiektio diedrikoan, bai eta perspektiba isometrikoan eta cavalieri perspektiban ere, proiektua garatzen ari • Ea behar bezala erabiltzen dituen adierazpen grafikoko tresnak. • Energia sortzeko prozedura desberdinak zerrendatzen ditu. • Energia berriztagarriak eta ez-berriztagarriak bereizten ditu. • Gizakiak energia lortzeko prozedura nagusiak deskribatzen ditu. • Ea nabigatzen duen sarean, bilatzaileak eta helburuak lortzeko behar dituen beste zenbait bitarteko erabiliz. • Ea balioesten dituen teknologia hauekin izan beharreko jarrera egokiak: jarrera irekia, erabilera arduratsua, jabetza intelektualarekiko errespetua eta datu pertsonalak babesteko eskubidearen errespetua.
---	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

1. Problema egoera:

Testuingurua: Inguruan ditugun gauzak, lekuak... aztertzen ditugu hainbat ikasgai ezberdinetan, baina horietako asko ezin ditugu zuzenean ikusi kokapenagatik (hau da, urrun egoteagatik) edota tamainagatik. Hau kontuan hartuta, maketen erabilgarritasuna agerian geratzen da, eskuragarri egiten baitituzte gure inguru hurbilean ez dauden objektu zein lekuak, edota begiz ikusteko tamainagatik txikiegiak edo handiegiak direnak ere.

Problema: Neurketa, proportzioa eta eskalen garrantziaz jabetzea eta modu egokian baliatzea taldean erabakiak hartuz eta lan eginez.

Xedea: Espazio eta proportzioaren kontzientzia garatzea.

Ataza: Ikasle talde bakoitzak bere intereseko objektu edo leku bat aukeratuko du eta teknologia gelara ekarriko digu (eraikiko du). Horretarako neurketetan trebatu beharko gara, eta maketak egingo ditugu behar den eskala kalkulatu eta erabiliz maketa horien eraikuntzan. Gure maketen inpaktua inguruan ahalik eta txikien izan dadin material birziklatua erabiltzea hobetsiko da.

Proiekturako gutxienekoak:

- Neurri maximoak: elementuaren araberakoak, baina gure apalategietan sartzea ezinbestekoa izango da
- Aukeratutako eskala magnitude guztietan aplikatu behar izango da, hau da, proportzioak errespetatuko dira.
- Materia birziklatuaren erabilera bereziki baloratuko da.

2. Problema egoera:

Testuingurua: Urtero bezala maiatzean eskolako ikasleak etortzen dira bisitan institutura. Harrera eguna esaten diogu horri. Lehenengo mailako ikasleek hurrengo urteko ikasleak izango direnei erakusten diete zentrua: gelak, espazio ezberdinak, takilak...

Problema: Batzutan teknologia gelara etortzen direnean harrera egunean inprobisatu behar da erakutsiko zaiena. Aurten, lehenengo ebaluaketako maketak erabiliz stand bat presta daiteke teknologia gelako azken mahaietan.

Xedea: Antolaketa lantzea eta egindako lanen balorazioa eta erabilgarritasuna handitzea, horrela autoestimua handituz.

Ataza: Lehen ebaluaketan egindako maketen artean aukeraketa bat egin (bozketaz talde bakoitzeko bi, adibidez), eta maketa horiek erabiliz eszenatoki bat prestatu eskolako ikasleak datozenean ikus dezaten.

Edukiak:

1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa	
Ord	Edukiak	Ord	Edukiak	Ord	Edukiak
1	Teknologia eta prozesu teknologikoa	4	Energia eta energia aldaketak	3	Metalak
7	Sistema diedrikoa: objektu baten bistak	6	Elektrizitatea	3	Eraikuntza materialak
5	Akotazioa eta eskala	14	Proiektua eta kronotxostena: etxebizitzetako instalazioak	7	Makina sinpleak
12	Proiektua eta kronotxostena: maketak			8	Proiektua eta kronotxostena: mekanismoa

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

Denboralizazioa:

ikasturtea hiru ebaluaketetan banatuko da, eta bakoitzean teoria eta praktika jarduerak landuko dira. Ebaluazio guztietan proiektu bat burutzen ahaleginduko gara. Proiektu bakoitzeko kronotxostena aurkeztu beharko da.

Taldekatzea:

- Talde handian: gaiaren aurrezagupen jarduerak egiteko, azalpen teorikoetan, lanen aurkezpenetan.
- Talde txikian: problemak ebatzi, kronotxostenak zirkuituen praktikak, aurkezpenak klasearen aurrean, uniteteei lotutako zenbait ariketa.
- Bakarka: lan monografikoak, froga idatziak.

Jarduerak mota ezberdinetakoak izango dira; aurrezagupen jarduerak, adibideak, azalpenak, sakontze ariketak, laburpenak, lan monografikoak, problema praktikoak, lan txostenak, aurkezpenak, objektuen eta sistemen analisiak, froga idatziak, ahozko galdeketak, praktikak, errefortzu ariketak, zabaltzeko jarduerak, berreskuratze jarduerak.

Testuen ulermena lantzeko, hiruhilabetero behin gutxienez testu baten irakurketa egingo da eta honen inguruko galderak erantzun egingo dira.

Ahozko adierazmena lantzeko, proiektuen aurkezpenak egingo dira eta bideoak ikusi eta ideia nagusiak atera.

Espazioaren antolaketa:

- Teknologia tailerra: hemen egokituko da jarduera nagusia.
- Ordenagailuen gela: zenbait jarduera mota egiteko; informazioa jaso, diseinuak egin, simuladoreak erabili, lan txostenak eratu, aurkezpenak...
- Ikastetxea bera: lanak erakusteko, bai maketak berak, bai eraikuntza prozesuaren argazkiak.

Baliabideak:

- Apunteak eta ariketak Fotokopien bitartez edo modu digitalean Google Classroom bitartez.
- Tailerreko tresnak eta erremintak.

Baliabide digitalak:

- Informatika gelak, kanoia eta arbel digitala.
- Simulazio programak
- Google apps: uribekostabhi.com kontuaz baliatuz hainbat tresna erabiltzen ditugu:
 - Gmail
 - Drive
 - Classroom
 - Calendar
 - Youtube
- TECNO12-18 apunte digitalak

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Orokorrean eguneroko lanaren behaketa • Froga idatzia • Egindako jardueren balorazioa • Taldearen auto-ebaluazioa • Norberaren lan-koadernoak • Aurkezpenari beste taldetako kideek egin dioten ebaluazioa • Txostena 	<ul style="list-style-type: none"> • Jarrera eta euskararen erabilpena (puntualtasuna, ikasle eta irakasleekiko errespetua, ikasgaiarekiko interesa...): %10 • Gai bakoitzeko azterketa teoriko bana: %40 • Tailerreko lana, proiektua, txostena eta aurkezpena. Klaseko eta etxerako bidalitako lanak eta lan koadernoak: %50 <p>Dena dela, ebaluaketa bakoitzean, portzentai hauek egokitu ahal izango dira emandako edukiei.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak azterketen arloko minimoa gainditu ez badu, hurrengo ebaluazioaren hasieran azterketa egingo du . • Ikasleak proiektua, praktika edo txostena epe barruan eman ez badu entregatu, hurrengo ebaluazioaren hasieran lan hori emateko epe berria errespetatu beharko du. • Ikasleak azken ebaluazioa gainditu ez badu <ul style="list-style-type: none"> o Azterketen arloko minimoa gainditu ez duelako, orduan, ezohiko azterketa egin beharko du. o Lanak ez dituelako eman epe barruan, orduan, falta zaizkion lanak egin eta eman beharko ditu eta, ostean, lan horiek irakasleari ahoz azaldu beharko dizkio. <p>1. DBHko teknologia gainditu gabe duten ikasleek, ikasturte honetan zehar bi deialdi edukiko dituzte berreskuratu ahal izateko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. deialdia: Azaroaren 8an • 2. deialdia: Apirilean (1. deialdian gainditu ez dutenentzat) <p>Lehen deialdian materia osoa aztertuko da, eta nota ondoko irizpideak jarraituz jarriko da: Udan egin behar izan duten berreskurapen lana notaren %50 eta azterketan ateratakoa % 50. Bigarren deialdietan azterketa bakarrik baloratuko da eta 5 beharko da gainditzeko.</p>	

OHARRAK

Bestalde, ikastetxeko proiektuekin bat eginez, mintegiko irakasleok eskola orduetan eta egokia ikusten duen uneetan, honako ekimenen alde joko dugula adierazi nahi dugu:

- **Normalizazioa:** Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.
- **Irakurketa Plana:** Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin. HTB: Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.
- **Hezkidetzak (Aniztasuna):** Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorren gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.
- **Bizikasi:** "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."
- **Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.
- **IKT:** Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).